



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza
Osasun Publikoaren eta Adikzioen
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud
Dirección de Salud Pública
y Adicciones

EAEKO BAINU-EREMUAK IREKITZEKO ETA ERABILTZEKO OSASUN- GOMENDIOAK

VITORIA-GASTEIZ, 2021EKO IRAILAK 1

1. SARRERA

COVID 19 gaixotasunak eragindako pandemia egoera denon erronka da une honetan eta, litekeena da, epe erdira ere horrela izaten jarraitzea. *Trantsizio prozesurako gaitasun estrategikoaren balorazio irizpideetan* jasotako adierazleen bilakaerak ezartzen ditu sektoreak pixkanaka berrirekitzeko erritmoak, 'normaltasun berriranzko' bidean, zeinetan berriro abiarazitako jarduerak nahitaezko lotura izan behar duten SARS-CoV-2 birusaren transmisioaren aurkako prebentzio neurriekin.

Bainurako lekuak, aisiarako eremuak izanik, jende askok bisitatzen ditu uda garaian. Aurtengo udako ekitaldi eta ospakizunak bertan behera geratu direnez, hondartzetan, segur aski, jende gehiago elkartzen jarraituko da uda garaian aisialdirako. Hori horrela izanik, arduraz erabili behar dira eremu horiek, eta SARS CoV-2 birusaren transmisioa gutxituko duten prebentzio neurriak ezarri behar dira. Guztion ardurak izanik, erakunde, profesional eta herritarrei dagokien zeregina da, eta horien guztien inplikaziorik gabe lortezina.

Dokumentu honetan, bainu-eremuak erabiltzearen ondorioz SARS-CoV-2 birusa izan ditzakeen transmisio-arriskuak aztertzen dira, eta portaera pertsonalekin lotutako eta eremu horien antolamenduari eta mantentze-lanei buruzko prebentzio-neurriak zehazten dira.

2. SARS-COV-2 TRANSMISIOA HONDARTZETAN ETA BAINURAKO LEKUETAN

Hondartzak direla-eta, ondorengo adierazten dute Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseiluaren (CSIC, 2020)¹ ondorioek eta *Hondartza eta bainurako lekuetan SARS-CoV-2 kutsatzeari buruzko txostenak*:

- Hondartza, erreka, laku eta igerilekuetan, SARS-CoV-2ren transmisio-bide nagusia arnasketa-jariakinak dira, eta, batez ere, ezturekin eta doministikuekin eta pertsonatik pertsonarako kontaktuarekin sortzen diren aerosolak. Beraz, beste edozein lekuri buruzko gomendio orokorrei eutsi behar zaie.
- Aisialdiko jardueretan, bainurako baldintza estandarrak dituen urarekin kontaktua izateagatik SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioa ez da oso gertagarria. Hala ere, distantzia sozialerako gomendatutako neurriak ez betetzea eragin ohi dute honelako jarduerak.
- Diluzio-efektuak eta, itsasoko uraren kasuan, gatza izateak, birus karga txikiagoa izaten eta, antzeko birusekin gertatzen dena estrapolatuz.
- SARS-CoV-2 birusaren biziraupena handiagoa izan daiteke ur gezan edo tratatu gabekoan (errekak, lekuak, putzuak,...) ur gezian baino, eta beraz, arreta handiagoz jokatu behar da jendetzak egotea saihesteko, bereziki diluzioa hain eraginkorra ez den putzu txikietan.
- Birusak haren edo itsasbazterretan zenbat iraun dezakeen oraindik aztertu ez bada ere, itsasoko uraren gatza, eguzki izpi ultramoreak eta hareak har dezakeen temperatura altua, denak batera, mesedegarriak dira agente patogenoak indargabetzeko.

¹ Hemen eskura daiteke: https://www.csic.es/sites/default/files/informe_playasypiscinas_csic.pdf

Hondakin urei dagokienez, birusa gorozkien bitartez iraitzi arren, ebidentzia txikia dago haren infektatzeko gaitasunaz. Bainurako uraren osasun kalitatearen ohiko zaintzan, programatutakoan nahiz intzidentzietan, kutsadura fekala adierazten duten bi bakterioen (*E. coli* y *Enterococo*)² presentzia ezartzen da. Gorotz kutsadura egotekotan bi bakterio horiek adieraziko lukete, hortaz, ez da beharrezkotzat jo SARS-CoV-2 birusagatik zehaztapen gehigarriak egitea. Nolanahi ere, Osasun Sailak, itsasoko uraren asteroko analisiak egiteaz gain (1341/2007 Errege Dekretua oinarri hartuta, bainatzeko sasoian egiten dira), aztertuko du ea egokia den itsasoko uraren analisi osagarriak egitea euri-jasak izan ondoren eta/edo hondakin-uren sareko kudeatzaileen abisua jasotzea, bainatzeko uraren kalitateari eragin diezaiokeen arintze edo noizbehinkako isurketa baten berri emanez.

Zentzu berean, Osasunaren Mundu Erakundeak adierazi du COVID-19rako arriskua dibertimenduzko bainuetan handiagoa izan daitekeela pertsonen arteko distantzia ez errespetatzeagatik, uretan birusa egoteagatik baino³.

Horiek horrela, hondartzetan eta bainurako lekuetan, beste tokietan bezala, beharrezkoa dira SARS-CoV-2 birusa arnas tanten bidez eta infektatutako pertsonetikiko kontaktu zuzenagatik, tartean eskuetan edo beste objektu edo azalera batzuetan egon daitekeen kutsatutako materialaren bidezko kontaktuagatik, ez kutsatzeko prebentzio neurriak.

3. HELBURUA

Agiri honen helburua da hondartzak eta bainu-eremuak ireki eta erabiltzeko prebentzio arau eta neurriak biltzea, horiek kudeatzen dituzten eragile eta erakundeei SARS-CoV-2 kutsatzeko arriskua gutxituko duten planak egitea ahalbidetze aldera.

² 1341/2007 ED, urriaren 11koa, bainurako uren kalitatearen kudeaketari buruzkoa.

³ Osasunaren Mundu Erakundeak. (WHO-ECE Bonn) 2020ko apirilaren 8ko e-seminar.

4. HODARTZAK ETA BAINU-EREMUAK COVID19-AREN PANDEMIA EGOERAN IREKI ETA ERABILTZEKO PREBENTZIO NEURRIAK.

4.1. Hondartzetan banakako prebentzio neurriak hartzeko eta horiek arduraz erabiltzeko herritarrei eman beharreko mezuak indartzea.

Funtsezkoa da hiritarren egiteko aktibo eta arduratsua hondartzak eta bainurako lekuak egoki erabiltzeko. COVID 19ren pandemiaren ondoriozko arriskuekin sentikortutako, horien inguruko informazioaz jabetutako, eta beren burua eta gainerakoak babestea erabakitzen duten, osasun gomendioak jarraitzen dituzten eta hondartza bakoitzean ezarritako erabilera arauak errespetatzen dituzten hiritarrekin baino ezingo da SARS-Cov-2 birusaren transmisioa gutxitu.

Horregatik, hiritarrak sentikortzeko komunikazioa indartu behar da komunikabide, web orri eta sare sozialen bitartez eta, baita bertatik bertara ere, hondartza bakoitzean, kartel, megafonia eta bestelako baliabideak erabilia.

Prebentzio neurriei eta bainu-eremuaren erabilerari buruz indartu beharrezko mezuak honako hauek lirateke:

Joan baino lehen:

1. COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak (besteak beste, sukarra, eztula, arnasketa arazoak) badituzu, ez joan bainu-eremura. Galdetu zure osasun zentroan.
2. Joan bainurako leku hurbil batera eta jaso erabilera eta sarbide baldintzei eta edukierari buruzko informazioa.
3. Antolatu egonaldi laburragoak bainu-eremuan (bi-hiru ordu gehienez). Jendetzak murriztu eta partekatze modua da. Pentsatu besteengan.

Hondartzan edo bainurako lekuan:

4. Gorde gutxienez 1,5 metroko tartea zurekin bizi ez diren pertsonekin, uretan zein kanpoan. Eutsi une oro pertsonen arteko distantzia.
5. Garbitu eta desinfektatu sarri eskuak. Saiatu, eskuak garbitu gabe, begiak, sudurra eta ahoa ez ukitzen.
6. Estali ahoa ez tul edo doministiku egitean, behin erabiltzeko zapi batez edo ukondoaren barnealdea aurrean jarriz.
7. Ez partekatu toallak eta garbitu bainujantziekin batera etxera heltzean.
8. Zaindu haurrak eta gogoratu behin eta berriz prebentzio neurriak bete ditzaten.
9. Bete bainu-eremuaren erabilera arauak eta baldintzak. Errespetatu salbamendu eta sorospen zerbitzuen jarraibideak eta gomendioak.
10. COVID19rekin bateragarriak diren sintomak, arnasketa sintomak edo, besteak beste, sukarra badituzu, joan bainu-eremutik lehenbailehen eta jo osasun zentrora.

11. Erabili maskara behar bezala:

Sei urtetik gorako pertsonen maskarak erabili beharko dituzte honako kasu hauetan:

- A) Erabilera publikoko edozein gune itxitan
- B) Aire zabaleko edozein espaziotan, pertsonen aglomerazioa dela eta, horien arteko gutxieneko distantzia 1,5 metrokoa izatea ezinezkoa denean, bizikide-taldeak izan ezik.⁴

Ez da beharrezkoa izango maskara igerilekuetan erabiltzea bainatu bitartean eta espazio jakin batean dagoen bitartean, betiere erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia errespetatu badaiteke. Igerilekuetako joan-etorriak egiteko eta paseatzeko, maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da pertsonen artean 1,5 metroko gutxieneko distantzia etengabe mantendu ezin denean.⁵

4.2. Pertsonen arteko distantzia errespetatzeko neurriak

Foru-aldundiek eta udalek mugak ezarri beharko dituzte bainu-eremuetara sartzeko eta edukiera zehazteko, erabiltzaileen artean pertsonen arteko segurtasun-distantzia errespetatu dadin. Horretarako, mugak ezarri ahal izango dituzte hondartzetan egoteko denboretan, bai eta aparkalekuetarako sarbideetan ere, hondartzen edukiera kontrolatzea errazteko.

Ezarritako prebentzio neurriak eta arau berriak eskura dauden komunikabideak (internet, irratiragarkiak, prentsa, kartelak, app-ak...) erabiliz hedatu beharko dira.

Ondoren, **adibide gisa**, ezarri ahal diren beste neurri batzuk zerrendatzen dira, kudeatzaileak balora ditzan:

1. **SARBIDEAK:** Sarbideak eta sarrera eta irteeren norabidea antolatu. Adibidez, ibilbidean zehar 1,5 m-ko tarteak markatuz sarbideetako (eta eremu komunitario) lurzoruan.
2. **EDUKIEREN KONTROLA:** Ahal denean, erabilera handieneko bainu-eremuetan, egunean zehar, aldizka, betetze-mailaren gaineko informazioa eman.
3. Harean laukiak markatzea tresnak perimetro baten barruan mantentzeko, erabiltzaileen artean distantzia nahikoarekin.
4. Bainu-eremuan egoteko denbora tarte laburragoa ezartzea/gomendatzea (2-3 orduko egonaldiak)
5. Erabilera ordutegiak/ordu tarteak: Ordu jakin batzuetan adin talde jakin batzuei lehentasuna eman.
6. Hondartzako itxitura programatuak, mareen arabera, hondarra oso txikia den hondartzetan.
7. Hareatzaren erabilerak antolatzea: ezinbestekoa ez den ekipamendu guztia kentzea, zirkuituak antolatzea. Esate baterako, joanaldia ertzetik eta bigarren ibilbidetik egin behar

⁴ 13/2021 ERREGE LEGE DEKRETUA, ekainaren 24koa, honako lege hauek aldatzen dituena: 2/2021 Legea, martxoaren 29koa, COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteena, eta 26/2020 Errege Lege Dekretua, uztailaren 7koa, COVID-19k garraioen eta etxebizitzaren eremuetan duen eraginari aurre egiteko suspertze ekonomikorako neurriak buruzkoa.

⁵ 36/2021 DEKRETUA, abuztuaren 30ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez hirugarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 33/2021 Dekretua, uztailaren 7koa, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehazteko.

da, 1,5 m-ko distantziak eta ibilaldien ordutegiak mantentzeko, eta jende asko ibiltzen den orduetan, hanean taldeko kirol-jarduerarik ez egiteko.

8. Uretako kirol eta aisialdi jarduerak (ontziak, kayakak, taulak, etab.). Segurtasun tarteak errespetatzeko neurriak eta, erabiltzen diren bakoitzean, garbitu eta desinfektatzeko prozedurak ezarri.

4.3 Ekipamenduak eta zerbitzuak

Bainurako lekuetan egon ohi den ekipamendu gehiena, partekatzen bada, ukipenagatik kutsatzeko fokua izan ahal denez, ezinbestekoa baino ez egotea eta arduraz desinfektatu eta garbitzea komeni da.

Espazio itxi horiek aireztapen jarraitu ona izan beharko dute, eta, ahal dela, gurutzatua.

Jarraian, EAEko bainurako lekuetan ohikoenak diren ekipoak erabiltzerakoan jarraitu beharreko arauak ezartzen dira.

- **BAINUGELAK ETA KOMUNAK:**

- Aireztapena etengabe mantentzea eta, ahal bada, erabili bitartean gurutzatuta egotea.
- Xaboiak edota gel hidroalkoholikoak, behin erabiltzeko toallak eta paperontzi pedaldunak jarri.
- Sarreran tartea mantendu behar dela, barruan pertsona bakarra baino ezin dela egon eta kanpoan, aire zabalean, itxaron behar dela dioten kartelak jarri. Zoruan laukiak, marrak eta abar markatzea.
- Barruan, eskuak nola garbitu eta urari komuneko tapa itxita dagoela eragiteko modua adierazten duen kartela jarri.
- Sarriago garbitu eta desinfektatu. Gutxieneko maiztasuna egunean lau aldiz garbitzea izango da, eta jende gehiago dagoen egunetan eta hondartzetan gehiagotan egin beharko da.

- **ALDAGELAK**

- Gehieneko edukieraren ehuneko 50ean erabili ahal izango dira aldagelak, bai eta dutxak ere, banaka edo pertsonen arteko bi metroko distantzian.⁶
- Aireztapena etengabe mantentzea eta, ahal bada, erabili bitartean gurutzatuta egotea.
- Behar bereziak dituzten pertsonak baino ezingo dituzte erabili.
- Sarriago garbitu eta desinfektatu, ordutegien eta erabileraren arabera.

- **DUTXAK ETA OINAK GARBITZEKO ONTZIAK**

- Kanpoko hornidura guztiak mantendu, erabiltzen direnean gutxienez 1,5 metroko tartea gordetzeko moduan antolatuta.

- **ITURRIAK**

- Ur iturriak badira erabili.

- **PAPERONTZIAK**

⁶ 30/2021 DEKRETUA, ekainaren 18koa, lehendakariarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretua, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzkoa.

- Hondartzatik kanpo jartzea komeni da. Hobe kanpoaldean jartzea, eta ahal bada, eskuz irekitzen ez direnak.
- Arduraz garbitu eta desinfektatu.

- **HONDARTZAKO ZERBITZUEK KUDEATUTAKO/EMANDAKO HAMAKAK, TOLDOAK ETA ITZALKINAK.**
 - Denboraldi honetan kentzea gomendatzen da.
 - Hamakak mantenduko direla erabakitzekotan, koltxoak bezalako ehunak kendu eta elkarrekin bizi ez diren taldeen artean gutxienez 1,5 metroko tartea mantentzeko moduan jarriko dira.
 - Hamakak erabiltzen diren bakoitzean, garbitu eta desinfektatu. Arduraz garbitu eta desinfektatu.

- **SOROSPEN POSTUAK**

Sarreran, postura informazioa eskatu edo ematera hurbiltzen diren pertsoneri, ilaran eta 1,5 metroko tartea gordeta itxaron behar dutela gogoraraziko dien kartela jarri.

Postuaren barrualdean:

 - Gel hidroalkoholikoa edo xaboia, behin erabiltzeko toallak eta paperontzi pedaldunak jarri.
 - Langileei ondorengoak gogoraraziko dien kartela jartzea komeni da:
 - Higiene neurri orokorrak bete behar direla.
 - Ahal den neurrian, lanerako ekipoak eta gailuak beste lankideekin trukatzeko saihestu behar dela. Lankide batek baino gehiagok ekipo edo gailu jakin batzuk (walkieak, erreskateko materiala, etab) erabili behar izatekotan, kutsatzeko arriskua murrizteko arauak ezarri behar direla.
 - Instalazioen barruan pertsonen arteko tartea (gutxienez 1,5 metro) ziurtatu behar dela.
 - Lanaldia amaitzean eta pertsona batek beste bati ematean, ekipoak garbitu eta desinfektatu behar direla.

- **HAURREN JOLAS GUNEAK**

Kirol-instalazioetan eta jolas-parkeetan, garbitasuna eta desinfekzioa bermatuko dira.

- **BAINU LAGUNDUAN** lan arriskuen prebentzio plan bat eduki, prebentziozko gomendio orokorrak bete eta erabiltzaileen artean erabilitako ekipamendua garbitu/desinfektatu beharko da.

4.4 Garbiketa eta desinfekzio neurriak

Osasun Sailaren Establezimenduak eta jendea biltzen duten lekuak garbitu eta desinfektatzeko neurriei buruzko Jarraibide Teknikoan ⁷ ezarritako gomendioak jarraituta garbitu eta desinfektatuko dira instalazioak, aurreko atalean adierazitako maiztasunarekin eta inoiz ez egunean behin baino gutxiagotan.

Langile espezializatuentzat Osasun Ministerioan erregistratutako desinfektatzaileak erabili behar direnean, Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean (ROESB) ⁸ inskribatutako enpresetako teknikari adituek aplikatuko dituzte.

4.5 Langileak babesteko neurriak

- Kudeatzaile bakoitzak egin eta eguneratuko du lan arriskuen prebentzioari buruzko neurri guztiak, arriskuen ebaluazioa eta langileen osasunean eragina gutxitzeko hartutako neurriak jasoko dituen protokoloa, arreta berezia higiene pertsonalari eta norbanako babes neurriei emanda.
- SARS-CoV-2 birusaren aurrean lan arriskuen prebentzio zerbitzuentzako Osasun Ministerioaren jarduketa prozeduran ezarritakoaren arabera izango da protokoloa eta horren arabera aplikatuko da, jarduera mota, langileentzako arrisku ebaluazioa eta agente biologikoaren ezaugarriak aintzat hartuta.

OHARRA:

Agiri honetan jasotako gomendioak berraztertu eta eguneratuko dira, egoera epidemiologikoagatik, ebidentzia zientifiko berriengatik edota osasun araudian izandako aldaketengatik aldatu behar izatekotan.

⁷ Hemen eskura daiteke:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/coronavirus_normativa/eu_def/adjuntos/JT-02-Establezimenduak-jendea-biltzen-duten-lekuak-garbitu-desinfektatzeko-neurriak.pdf

⁸ Hemen eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/informazioa/produktu-kimikoak/web01-a2ingsan/eu/>